

Familia bat osatzeko ametsa baldin baduzu, baina bikotekiderik ez.

Ideia hori daukan pertsona bakarra zarela pentsatzen baduzu.

Erabakia hartu baduzu baina ez badakizu nondik hasi.

Bidean bazaude eta luze eta gogor egiten bazaizu.

Guraso bakarreko familia bat sortu baduzu.

Uste baduzu haurra bikotekiderik gabe hezitzeak ez duela esan nahi bakarrik zaudenik.

Partekatu, ikasi, eguneroko egoerez edo egun bakoitzeko desfioez hitz egin edo gogoeta egin nahi baduzu.


Elkartuta GEHIAGO egin dezakegula uste baduzu...

Ongi etorria izango zara, hau guretzako leku bat delako, guretzat eta gure familientzat.



 www.madressolterasporeleccion.com

 asociacionmspe@gmail.com

 622 323 173

 www.facebook.com/AsociacionMSPE

 @AsociacionMSPE

delegadacantabria@madressolterasporeleccion.com

delegadaaragon@madressolterasporeleccion.com

delegadaAndalucia@madressolterasporeleccion.com

delegadaeuskadi@madressolterasporeleccion.com

delegadaGalicia@madressolterasporeleccion.com

delegadaCastillaLeon@madressolterasporeleccion.com

delegadaCatalunya@madressolterasporeleccion.com

delegadacomunidadvalenciana@madressolterasporeleccion.com

delegadaMadrid@madressolterasporeleccion.com



ASOCIACIÓN
**MADRES
SOLTERAS
POR ELECCIÓN**

Guraso bakarreko familien laguntza-sarea, gero eta handiagoa. Hamar urte baino gehiago daramatzagu lanean eta ordezkariak dauzkagu Espainia osoan.



Nortzuk gara?

Madres Solteras por Elección (MSPE) gobernuz kanpoko eta irabazi-asmorik gabeko elkarte da, 2007an sortu zen eta estatu mailakoa da.

Seme-alabak izatea eta guraso bakarreko familiak sortzea erabaki dugu modu librean.

Gizarteak azken urteotan bizi izan dituen aldaketen ondorioz, familia-eredu desberdinak sortu dira eta onartutako eredu bakar batetik familien dibertsitate aberasgarri batera igaro gara.

Aldi berean, familiei buruzko legeak aldatzen ari dira eredu tradizionalako ez diren familien bazterkeria gutxitzeko. Horien artean gaude gu, MSPEko kideak.

Emakumezkoak dira gure familia-eredua sortzen dituzten gehienak, baina elkarte egoera horretan dauden gizonezkoak hartzeko prest dago, guraso bakarreko familia bat eratzea aukeratu badute edo bidean badaude, eta parte hartzeko prest badaude.

Zeintzuk dira gure helburuak?

Guraso bakarreko familia-eredu hau ezagutaraztea eta gizarte sentsibilizatzea, era aske eta borondatez hartutako aukera arduratsu modura onar dadin, egoera zibila alde batera utzita.

Bizipenak eta informazioa trukatzeko laguntza-taldea izatea bikotekiderik gabeko guraso izan nahi dutenentzat edo dagoeneko aukera hori hartu dutenentzat.

Guraso bakarreko familiok dauzkagun eskubideak eta beharrianak aldarrikatzea estatuko erakundeen eta gizartearen aurrean.

Zer aurki dezakezu gure elkartearen?

Interesatzen zaizkigun gaiari buruzko informazioa: laguntza bidezko ugalketa, adopzioa, amatasuna, hazkuntza, hezkuntza eta legedia.

Era askotako informazioa daukan webgunea eta foro pribatua bazkideentzat, zalantzak eta esperientziak partekatzeko.

Laguntzarako eta esperientziak trukatzeko taldea. Zure errealitatea bizitzen ari diren emakumeak ezagutzeko aukera, haiekin adiskidetasuna eta laguntasuna partekatzeko. Azken batean, babeserako sareak sortzeko aukera.

Deskontuak eta abantailak eskaintzen dizkiguten erakunde laguntzaileak (kliniak, aholkulariak, dendak eta abarrak).

Jarduera hauek ere egiten ditugu:

JARDUERA INFORMATIBOAK:

MSPEko kideen interesekoak diren gaiak lantzeko: haurren hazkuntza, gurasoen eta umeen arteko harremanak, seme-alaben hezkuntza, adopzioa, laguntza bidezko ugalketako tratamenduak, legeen arloa eta abar.

Arlo askotako adituen laguntza daukagu eta gai ugariaren inguruko eztabaida- eta laguntza-taldeak sortzen ditugu.

AISIALDIA FAMILIAN:

Kultur ekintzak (antzerkia, kontzertuak, ipuin-kontalariak...) eta aire zabaleko jarduerak programatzen ditugu, bai eta txangoak eta bidaiak ere. Ekintza guztiak helduek zein umeek ondo pasatzeko pentsatuta daude. Gainera, gurasoei aukera ematen diete bizipenak partekatzeko eta umei familia-eredu bereko umeak ezagutzeko, eurekin harremana eratzeke eta jolas egiteko.

Zelan antolatzen dugu elkarteak?

Bazkideek kudeatzen dute elkartearen egiten den lan guztia, borondatezko lanaren bidez, modu altruistan eta txandaka.

Hau da gure egitura:

· Zuzendaritza Batzordea.

Ordezkaritzak Andaluzian, Aragoian, Kantabrian, Katalunian, Gaztela eta Leonen, Madrileko Erkidegoan, Valentziako Erkidegoan, Galizian eta Euskadin. Beste erkidego batzuetan ez dago ordezkaritzarik baina bazkideren batek ireki nahi badu, ongi etorria izango da.

Lan-batzordeak: hezkuntza, legedia, komunikabideak, harremanak erakundeekin, erakunde laguntzaileak, jarduerak, webgunea eta liburutegia.

Gure elkarteak ez du diru-laguntza publikorik jasotzen eta urteko kuotarekin finantzatzen dugu lan guztia. Bazkideek kudeatzen dute lan guztia beren borondatez, lanarekin eta familiarekin uztartzen ahaleginduz.

Federación de Asociaciones de Madres Solteras izeneko federazioaren barruan gaude (FAMS), taldean eta sarean lan egiteak ikusgarriago eta sendoago egiten gaituelako.

Guraso bakarreko familiei buruzko lege bat lortzeko ari gara lanean estatuan, gure familia definituko, arautuko eta babestuko duena.

Hedabideekin (telebista, prentsa eta irratiekin) elkarlanean aritzen gara eta gure familia-ereduarekin zerikusia daukaten ikerketa-lanetan laguntzen dugu.